

SARRERA

MARRAZKETA TEKNIKOA

Perdoiak

Egilea: Arrasateko Eskola Politeknikoa

Argitaratzailea: Elhuyar

2002ko urtarrilean berritua

Esku artean duzun material hau Lanbide Heziketako **Fabrikazio Mekanikoa** familiako zenbait gai lantzeko materiala da. Bereziki, ‘Proiektu mekanikoen garapena’ zikloko zenbait gai lantzeko da egokia.

Lanbide Heziketaren erdi mailako urteetara egokitutakoa izanik ere, goi-zikloko zenbait kontzeptu azaltzeko ere erabil daiteke.

Ez da oinarrizko curriculum-materiala eta ez du arloa bere osotasunean lantzen, baina arlo horretan garrantzitsua den puntu bat lantzen du azalpen, adibide eta ariketekin. Beraz, oinarrizko material ez ezik oinarrizko azalpenak laguntzeko material osagarri modura erabil liteke.

Edukiari buruzko azalpen labur honen jarraian, ohartxo bat egitea derrigorrezkoa ikusten dugu: ez da material berria jarraian topatuko duzuna, baina ez du iraungitze-mugarik ere. Eduki aldetik materiala sortu zen garaian bezain erabilgarria da gaur egun ere, eta hizkuntza aldetik berriz, Euskaltzaindiaren erabakiak erabiliz eguneratutako materiala dela jakinda, gaurkotasun handikoa da.

Gai honen inguruan ohar edo iradokizunik bazenu, eskertuko genizuke guregana joko bazenu (trebakuntza@elhuyar.com edo www.elhuyar.com).

MARRAZKETA TEKNIKOA

Irakaskuntza Ertainak

PERDOIAK

VII

UNITATE DIDAKTIKOA



Elkarlan



ARRASATEKO ESKOLA POLITEKNIKOA

Elhuyar

MARRAZKETA TEKNIKOA

VII. UNITATE DIDAKTIKOA

PERDOIAK

Irakaskuntza Ertainak

ARRASATEKO ESKOLA POLITEKNIKOA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 1990-VIII-1

Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera eguneratua: 20002ko urtarrila

© ELHUYAR. Asteasuain, 14. Txikiardi. 20170 USURBIL

© ELKARLANEAN. DONOSTIA

© ARRASATEKO ESKOLA POLITEKNIKOA. ARRASATE

ISBN: 84-7529-883-4

AURKIBIDEA

| | <u>Or.</u> |
|--|------------|
| 1.- UNITATEAREN HELBURUA..... | 5 |
| 2.- IDEIA OROKORRAK..... | 5 |
| 2.1. Perdoiak..... | 5 |
| 2.2. Perdoiaren posizioa..... | 7 |
| 2.3. Erabiltzen den terminologia | 7 |
| 3.- ISO PERDOI-SISTEMAK..... | 9 |
| 3.1. Perdoiaren kalitateak | 9 |
| 3.2. Perdoi-tartearen anplitudea..... | 10 |
| 3.3. Perdoiaren posizioak | 13 |
| 3.4. Posizioen ezaugarriak..... | 15 |
| 3.5. Erreferentzia-diferentzien kalkulua..... | 16 |
| 3.6. Perdoiaren izendapena | 28 |
| 4.- DOIKUNTZA-SISTEMAK | 40 |
| 4.1. Erabiltzen diren izen eta definizioak | 41 |
| 4.2. Doikuntza baten lasaieraren kalkulua | 42 |
| 4.3. Doikuntza-motak | 46 |
| 4.4. Doikuntzaren izendapena..... | 47 |
| 4.5. ISO doikuntza-sistemak | 47 |
| 4.6. Gomendaturiko doikuntzak..... | 49 |

1.- UNITATEAREN HELBURUA

Eraikuntza mekanikoan fabrikazio-perdoiak erabiltzeak duen eragina eta garrantzia ezagutzea.

ISO perdoi-sisteman aplikatzen diren elementuak ikastea. Doikuntza-sistemen teknika ezagutzea.

2.- IDEIA OROKORRAK

Finkatutako neurri berdin-berdinetan piezak ezin egina ikusirik, perdoi-kontzeptua sartzen da proiektu mekanikoetan. Edozein piezaren fabrikazioa dela ere, neurri absolutuak lortzea ezinezko gertatzen da, eta hauek izan daitezke horren arrazoiak:

| |
|-------------------------------------|
| Erabilitako makinaren lasaieragatik |
| Neurketa-elementuen akatsengatik |
| Langilearen trebetasun-faltagatik |
| etab.engatik |

Beraz, dimentsio edo neurri bakoitzari akats-tarte bat ezartzea beharrezkoa da. Dimentsioen akats-tarte horietatik at, beste onarpen batzuk ere egitea beharrezkoa da, hala nola, azaleko irregulartasunak eta forma geometrikoetako irregulartasunak.

Kontzeptu hau, oso interesgarria da lana seriean egiten den kasuan, eta erabat pieza trukagarriak fabrikatzen dira, nola makinaren muntaiarako, hala ordezko piezatzat erabiltzeko.


2.1. Perdoiak

D kota teoriko edo izendatua duen pieza batek balio izateko izan dezakeen muga-neurrien tarte edo aldeari deritzogu

Perdoia

Beraz, piezak balio izateko onartzen diren neurrietan kota maximotzat D_{\max} izendatzen badugu eta kota minimotzat D_{\min} , perdoia bi neurri horien arteko diferentzia izango da, hots (2.1. irudia):

$$T = D_{\max} - D_{\min}$$



2.1. irudia. Perdoia. a- Zuloa; b- Ardatza

Perdoien balioak mikrometrotan adierazirik daude (milimetroaren milarena) sistema metriko hamartarra duten herrietan, eta hatz-zatikietan herri anglosaxoietan, eta zenbaki positiboz zein negatiboz eman daitezke.


Aplikazio-adibidea:

2.2. irudian agertzen den 20 mm-ko ardatzaren eraikuntzan 19,950 mm eta 20,020 mm bitarteko diametroak onartuak izanik, kalkulatu:


- Perdoiaren balioa:
 $\text{Perdoia} = (\text{balio maximoa} - \text{balio minimoa})$
 $t = 20,020 - 19,950 = 0,070 \text{ mm (70 mikrometro)}$
- Diametro izendatuarekiko onarturiko desbideratzeak:
 Positiboa (+): $(20,020 - 20) = 0,020 \text{ mm} = (20 \text{ mikrometro})$
 Negatiboa (-): $(20 - 19,950) = 0,050 \text{ mm} = (50 \text{ mikrometro})$

Kota nola idatzi:

Kota bat bere perdoiez idazteko, lehenik kota izendatua idazten da eta ondoren diferentzien magnitudeak idazten dira (2.3. irudia).



2.2. irudia.




2.3. irudia. Kota nola idatzi.

2.2. Perdoiaren posizioa

Perdoi-tarteak (EL) neurri izendatuarekiko ondorengo hiru posizio hauek har ditzake (2.2. irudia),

| | |
|----------------------------------|--------|
| Neurri izendatuaz goitik | + |
| Neurri izendatuaz behetik | - |
| Neurri izendaturen bi aldeetatik | + - |

haien balioak adierazitako zeinuz ordezkaturik egonik.



2.4. irudia. Perdoiaren posizioak.

(EL) Erreferentzia-lerroa neurri izendaturen akotazioari dagokiona da.

2.3. Erabiltzen den terminologia

Ardatza. Beste pieza batean akoplatzen den edozein zilindro edo pieza prismatikori ardatz deritzogu (2.5. irudia).


Zuloa. Ardatza txertaturik doan ahokalekuri zulo deritzogu (2.6. irudia).

Neurri izendatua. Edozein neurrirentzat planoko kotan adierazitako neurriari neurri izendatu deritzogu (2.7. irudia).


Neurri praktikoa. Pieza egin ondoren eta zuzenean neurtuz lortzen den neurriari neurri praktikoa deritzogu (2.7. irudia).

Neurri maximoa. Eraikuntzan onar daitekeen neurririk handienari neurri maximo deritzogu (2.7. irudia).


Neurri minimoa. Eraikuntzan onar daitekeen neurririk txikienari neurri minimo deritzogu (2.7. irudia).



2.5. irudia. Ardatza



2.6. irudia. Zuloa



2.7. irudia. Erabiltzen den zenbait terminoren irudikapena.

Ezaugarriak

| | |
|--|---|
| <div style="border-left: 1px solid black; border-right: 1px solid black; padding: 0 10px;"> <p>Neurri izendatua</p> <p>Neurri maximoa</p> <p>Neurri minimoa</p> </div> | D zuloarentzat d ardatzarentzat l luzerarentzat |
| | D_{max} zuloarentzat d_{max} ardatzarentzat l_{max} luzerarentzat |
| | D_{min} zuloarentzat d_{min} ardatzarentzat l_{min} luzerarentzat |

Perdoiak ondorengo posizioak eduki ditzake D kota izendatuarekiko:

- | | | |
|------------------------------|-----------|-----------|
| a) $D_{\max} > D < D_{\min}$ | $d_s > 0$ | $d_i > 0$ |
| b) $D_{\max} > D = D_{\min}$ | $d_s > 0$ | $d_i = 0$ |
| c) $D_{\max} > D > D_{\min}$ | $d_s > 0$ | $d_i < 0$ |
| d) $D_{\max} = D > D_{\min}$ | $d_s = 0$ | $d_i < 0$ |
| e) $D_{\max} < D > D_{\min}$ | $d_s < 0$ | $d_i < 0$ |

Kota maximoaren eta kota izendatuaren arteko diferentziari d_s diferentzia goren esaten zaio.

$$d_s = D_{\max} - D \quad \text{eta bai} \quad D_{\max} = D + d_s \quad \text{ere}$$

Kota minimoaren eta kota izendatuaren arteko diferentziari d_i diferentzia beheren deitzen zaio.

$$d_i = D_{\min} - D \quad \text{eta bai} \quad D_{\min} = D + d_i \quad \text{ere}$$

Aurreko formuletatik, honako hau lor daiteke,

$$T = D_{\max} - D_{\min} = (D + d_s) - (D + d_i) = d_s - d_i$$

edo bestela esanik, perdoia kota maximoaren eta minimoaren arteko diferentzia izanik, diferentzia gorenaren eta diferentzia beherenaren arteko diferentziaren baliokidea da.

3.- ISO PERDOI-SISTEMAK

ISO sistemako perdoiak perdoiaren *kalitate* eta *posizioaz* definitzen dira.

Perdoiaren *kalitatea*, hain zuzen ere, bere balioa da. Sistema metrikoan mikrometrotan adierazten da.

Posizioa, berriz, erreferentzia-lerro edo piezaren lerro izendatuarekiko perdoiak duen egoera da.

3.1. Perdoien kalitateak

Kalitatea perdoi-tartearen zabaleraren arabera izango da. "Zenbat eta kalitate handiagoa, are eta perdoi-tarte txikiagoa, eta alderantziz, zenbat eta kalitate txikiagoa, are eta perdoi-tarte handiagoa".

ISO sisteman 20 perdoi-kalitate ezarri dira honela izendatuta:

$$\text{IT-01, IT-0, IT-1, IT-2, IT-3, ..., IT-18}$$

(IT = ISO perdoiak)

IT-01 kalitatea oso doitasun handiko eraikuntzari dagokio, eta ondoren kalitatea IT-18 kalitate apaleneraino iritsi arte jaisten doa.

Kalitate horien aplikazioa ondoko taulan erakusten da:

| Kalitateak | Aplikazioak |
|--------------|---|
| IT-01 – IT5 | Kontrol-txantiloien eraikuntzan eta zehaztasun handiko eraikuntzan. |
| IT-6 – IT-7 | Lantegi arruntetan lor daitezke, doitasunezko mekanizazio eta akaberan. |
| IT-8 – IT11 | Txirbil-harroketazko makina-erreminten akabera arruntetan. |
| IT-11 – IT16 | Eraikuntza-lan zakarretan, forja, ijezketa eta abarretan. |

3.2. Perdoi-tartearen anplitudea

Lehentxeago esan dugunez, kalitate handiagoari perdoi-tarte txikiagoa dagokio, eta horrela ezarritako neurria lortzeko zailtasun handiagoak izango ditugu.

Bestalde, 50 mikrometroko perdoia lortzea errazagoa izango da 8 mm-ko neurrian 400 mm-koan baino.

Hau honela izanik, perdoi-tartearen anplitudea ondoko hauen arabera izango da:

- Perdoi-kalitatearen arabera
- Piezaren neurrien arabera

1. taulan, mekanikan gehien erabiltzen diren kalitateentzako perdoi-tarteen anplitudeak ematen dira:

| | | | | | | | | | | | | |
|--------------|----|-----|-----|-----|-----|-----|------|------|------|------|------|-------|
| IT kalitatea | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| Perdoia | 7i | 10i | 16i | 25i | 40i | 64i | 100i | 160i | 230i | 400i | 610i | 1000i |

i perdoi-unitateari dagokiona piezaren neurriaren funtzioan ebatzen da, ondoko formula enpiriko honen bidez:

$$i = 0,45 \sqrt[3]{D} + (D/1000)$$

Non D neurria mm-tan eta i perdoi-unitatea mikrometrotan adierazten baitira.

Teorikoki, kota izendatu bakoitzak hemezortzi perdoi-kalitate onartzen ditu. Praktikan, ordea, kalkuluak erraztearren, ISO perdoi-sistemak kotak 13 neurri-sailetara bildu ditu, 2. taula honetan adierazten diren eran:

2. taula

| Taldea | Neurri-saila | Taldea | Neurri-saila | Taldea | Neurri-saila |
|--------|-----------------|--------|------------------|--------|---------------------|
| 1 | 0tik 3raino | 5 | >18tik 30eraino | 9 | >120tik 180raino |
| 2 | >3tik 6raino | 6 | >30etik 50eraino | 10 | > 180tik 250eraino |
| 3 | >6tik 10eraino | 7 | >50etik 80raino | 11 | >250etik 315eraino |
| 4 | >10etik 18raino | 8 | >80tik 120raino | 12 | > 315etik 400eraino |
| | | | | 13 | >400etik 500eraino |

i perdoi-unitatea lortzeko erabiltzen den (D) neurria, talde bakoitzaren mugetako balioen batezbesteko geometrikoa da.

$$D = \sqrt{D_1 \cdot D_2}$$

1. eta 2. taula erabiliz perdoi-tartearen anplitudea kalkulatu denean, lorturiko balioak gorantz biribiltzen dira 3. taularen arabera.

3. taula

| Kalkulaturiko balioak mikrometrotan | Multiplak |
|-------------------------------------|-----------|
| 100 eraino | 1ena |
| 100etik-200eraino | 5ena |
| 200etik-500eraino | 10ena |

Ondorengo 4. taulan, kalitate eta neurri-sail ezberdinen perdoi-tartearen anplitudea azaltzen da.

4. taula

ISO PERDOIAK NEURRI-SAIL ETA KALITATEAREN ARABERA

| Neurri-sailak | KALITATEAK | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--------------------|------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|-------|
| | IT 01 | IT 0 | IT 1 | IT 2 | IT 3 | IT 4 | IT 5 | IT 6 | IT 7 | IT 8 | IT 9 | IT 10 | IT 11 | IT 12 | IT 13 | IT 14 | IT 15 | IT 16 |
| ≤3 | 0.3 | 0.5 | 0.8 | 1.2 | 2 | 3 | 4 | 6 | 10 | 14 | 25 | 40 | 60 | 100 | 140 | 250 | 400 | 600 |
| >3tik 6raino | 0.4 | 0.5 | 1 | 1.5 | 2.5 | 4 | 5 | 8 | 12 | 18 | 30 | 48 | 65 | 120 | 180 | 300 | 480 | 750 |
| >6tik 10eraino | 0.4 | 0.6 | 1 | 1.5 | 2.5 | 4 | 6 | 9 | 15 | 22 | 36 | 58 | 90 | 150 | 220 | 360 | 580 | 900 |
| >10etik 18raino | 0.5 | 0.8 | 1.2 | 2 | 3 | 5 | 8 | 11 | 18 | 27 | 43 | 70 | 110 | 180 | 270 | 430 | 700 | 1100 |
| >18tik 30eraino | 0.6 | 1 | 1.5 | 2 | 4 | 6 | 9 | 13 | 21 | 33 | 52 | 84 | 130 | 210 | 330 | 520 | 840 | 1300 |
| >30etik 50eraino | 0.6 | 1 | 1.5 | 2.5 | 4 | 7 | 11 | 16 | 25 | 39 | 62 | 100 | 160 | 250 | 390 | 620 | 1000 | 1600 |
| >50etik 80raino | 0.8 | 1.2 | 2 | 3 | 5 | 8 | 13 | 19 | 30 | 46 | 74 | 120 | 190 | 300 | 460 | 740 | 1200 | 1900 |
| >80tik 120raino | 1 | 1.5 | 2.5 | 4 | 6 | 10 | 15 | 22 | 35 | 54 | 87 | 140 | 220 | 350 | 540 | 870 | 1400 | 2200 |
| >120tik 180raino | 1.2 | 2 | 3.5 | 5 | 8 | 12 | 18 | 25 | 40 | 63 | 100 | 160 | 250 | 400 | 630 | 1000 | 1600 | 2500 |
| >180tik 250eraino | 2 | 3 | 4.5 | 7 | 10 | 14 | 20 | 29 | 46 | 72 | 115 | 185 | 290 | 460 | 720 | 1150 | 1850 | 2900 |
| >250etik 315eraino | 2.5 | 4 | 6 | 8 | 12 | 16 | 23 | 32 | 52 | 81 | 130 | 210 | 320 | 520 | 810 | 1300 | 2100 | 3200 |
| >315etik 400eraino | 3 | 5 | 7 | 9 | 13 | 18 | 25 | 36 | 57 | 89 | 140 | 230 | 360 | 570 | 890 | 1400 | 2300 | 3600 |
| >400etik 500eraino | 4 | 6 | 8 | 10 | 15 | 20 | 27 | 40 | 63 | 97 | 155 | 250 | 400 | 630 | 970 | 1550 | 2500 | 4000 |

Aplikazio-adibidea

Kalkula ezazu 75 mm-ko diametroari IT-7 kalitatean landurik dagokion perdoi arautua.

Ebazpidea:

– Perdoi-anplitudea (1. taula) IT-7 = 16i

– Perdoi-unitatearen kalkulua:

$$i = 0,45 \sqrt[3]{D} + (D/1000)$$

– D-ren kalkulua: $D = \sqrt{D_1 \cdot D_2}$

75 mm-ko diametroa 7. sailean sarturik dago. Beraz, honako diametro honen perdoi berbera izango du:

$$D = \sqrt{50 \cdot 80} = 63,245 \text{ mm}$$

eta honi honako perdoi hau dagokio:

$$i = 0,45 \sqrt[3]{63,245} + (63,245/1000) = 1,85 \mu$$

– Perdoi-anplitudea: $t = 16 \cdot 1,85 = 29,69 \mu$

3. taularen arabera biribildurik:


$$t = 30 \mu$$

OHARRA: 4. taulan egiaztatu.

3.3. Perdoien posizioak


Ikusi dugunez, perdoiarekin kalitatearekin perdoi-tartearen anplitudea definitzen da. Orain erreferentzia-lerroarekiko perdoi-tartearen posizioa definituz, perdoia guztiz finkaturik geldituko da.

Perdoien posizioa beronen diferentzia gorenaren eta behearen bidez erabakitzen da, horiek lerro izendatuarekiko goitik edo behetik dauden (3.1. irudia).




3.1. irudia. Erreferentzia-diferentzia.

3.2. eta 3.3. irudietan, ardatzentzat zein zuloentzat perdoien posizio ezberdinak adierazten dira.



3.2. irudia. Ardatzentzat perdoi-tartearen posizioa honela finkatzen da:


- | | |
|-----------------------------------|------------------------------|
| 1. Diferentzia beheana, d_1 | 4. Diferentzia gorena, d_s |
| 2. Diferentzia beheana, $d_1 = 0$ | 5. Diferentzia gorena, d_s |
| 3. Diferentzia gorena, d_s | |



3.3. irudia. Zuloetan perdoi-tartearen posizioa honela finkatzen da:

- | | |
|------------------------------|-------------------------------------|
| 1. Diferentzia gorena, d_s | 4. Diferentzia behearena, $d_i = 0$ |
| 2. Diferentzia gorena, d_s | 5. Diferentzia behearena, d_i |
| 3. Diferentzia gorena, d_s | |

ISO perdoi-sistemak erreferentzia-diferentzietarako 28 posizio ezarri ditu eta posizio bakoitza alfabetoko letra batez izendatzen da, edo/eta bi letraz. Zuloen perdoiaren posizioa seinaltzeko letra larriak erabiltzen dira eta ardatzen perdoiaren posizioa adierazteko, berriz, letra xeheak.



3.4. irudia. Posizioen ezaugarriak.

3.4. Posizioen ezaugarriak

* *Ardatzei dagozkienak*

a, b, c, cd, e, ef, f, fg eta g posizioak. Posizio hauetan, bai diferentzia gorena eta bai diferentzia behearena negatiboak dira; hau da, kota maximoa d kota izendatua baino txikiagoa da.

$$d_{\max} < d > d_{\min}$$

Posizio horien balio absolutuak a -tik hasita txikiagotuz doaz, h posizioan $d_s = 0$ egiten den arte.

h posizioak ($d_s=0$) diferentzia gorena zero du eta ($d_i=-t$) diferentzia behearena negatiboa; bere balio absolutua eta perdoia berdinak dira (3.4. irudia).

$$d_{\max} = d \quad \text{eta} \quad d_{\min} = d - IT$$

j eta js posizioak. Posizio hauetan perdoia zangalaturan bezala dago erreferentzia-lerroan eta simetrikoki js -ren kasuan (3.4. irudia). Beraz,

$$d_{\max} > d > d_{\min}$$
$$d_s = -d_i = t/2$$

eta js -ren kasuan

k posizioa. Berez bi k posizio daude: bata < 3 eta > 8 direnen kalitateentzat eta, bestea, 4tik 7rako kalitateentzat. Adierazitako kalitate horiei dagozkien posizioan $k1$ eta $k2$ izango ditugu.

k1 posizioan, diferentzia behearena zero eta diferentzia gorena perdoiaren berdina da. Beraz:

$$d_{\max} = d + IT \quad \text{eta} \quad d_{\min} = d$$

k2 posizioan, behe- eta goi-kotak, biak, erreferentzia-lerroaren gainean daude, hots:

$$d_{\max} > d < d_{\min}$$

m, n, p, r, s, t, u, v, x, y, z, za, zb, zc posizioak. Posizio hauetan kota maximoak eta minimoak erreferentzia-lerroaren gainean daude, hau da:

$$d_{\max} > d < d_{\min}$$

* *Zuloei dagozkienak*

A, B, C, CD, D, E, EF, F, FG, G posizioak. Posizio hauetan, diferentzia gorena eta diferentzia behearena positiboak dira. Beraz, perdoi guztiak erreferentzia-lerroaren gainean daude.

$$D_{\max} > D < D_{\min}$$

Posizio hauen balioak positiboak izanik **A**-tik hasita txikiagotuz doaz, **H** posizioan $D_i=0$ egin arte (3.4. irudia).

H posizioak ($D_i = 0$) diferentzia behearena zero du eta diferentzia gorena perdoiaren berdina da.

$$D_{\min} = D \quad \text{eta} \quad D_{\max} = D + IT$$

J eta Js posizioak. Posizio hauetan, ardatzetan bezala, perdoia zangalaturan dago erreferentzia-lerroan eta simetrikoki **Js**-ren kasuan. (3.4. irudia)

K, M, N, posizioak zangalaturan daude erreferentzia-lerroan edo bere azpian, kalitatearen arabera.

P, R, S, T, U, V, X, Y, Z, ZA, ZB eta ZC posizioak. Goiko kota eta behekoa, biak daude erreferentzia-lerroaren azpian, hau da:

$$D_{\max} < D > D_{\min}$$

3.5. Erreferentzia-diferentzien kalkulua

Erreferentzia-diferentziak kalkulatzeko, ondoko faktoreen funtziopean agertzen diren formula enpirikoak erabiltzen dira:

Dimentsioa D

Kalitatea IT

D dimentsioa neurri-sail bakoitzaren mugen balioen batezbesteko geometrikoa da.

Erreferentzia-diferentziak ardatzentzat 5. taulan ematen diren formulen arabera definitzen dira.

5. taula. Ardatzentzako erreferentzia-diferentziak.

| Kokapena | Kalitatea | Diferentzia | Erreferentzia-diferentzien balioak | |
|----------|--------------------------|--|--|----------------------|
| | | | mm-tan emandako D-rentzat | |
| a | Guztiak | d_s gorena | $-(265 + 1,3 D)$ | $D \leq 120$ rentzat |
| | | | $- 3,5 D$ | $D > 120$ rentzat |
| b | | | $\approx -(140 + 0,85 D)$ | $D \leq 160$ rentzat |
| | | | $\approx - 1,8 D$ | $D > 160$ rentzat |
| c | | | $- 52 D^{0,2}$ | $D \leq 40$ rentzat |
| | | | $- (95 + 0,8 D)$ | $D > 40$ rentzat |
| cd | | | c eta d-rentzat aurreikusitako balioen arteko batezbesteko geometrikoa | |
| d | | | $-16 D^{0,44}$ | |
| e | | | $- 11 D^{0,41}$ | |
| ef | | | e eta f-rentzat aurreikusitako balioen arteko batezbesteko geometrikoa | |
| f | | | $- 5,5 D^{0,41}$ | |
| fg | | | f eta g-rentzat aurreikusitako balioen arteko batezbesteko geometrikoa | |
| g | | | $- 2,5 D^{0,34}$ | |
| h | 0 | | | |
| js | — | Bi diferentzia limiteak goitik eta behetik erreferentzia-lerroarekiko simetriko daude. | | |
| j | 5etik 8ra | d_i beherena | Formularik ez | |
| k | 4tik 7ra | | $+ 0,6 \sqrt[3]{D}$ | |
| k | ≤ 3 eta ≥ 8 | | 0 | |
| m | Guztiak | | $+ (IT7 - IT6)$ | |
| n | | | $+ 5 D^{0,34}$ | |
| p | | | $+ IT7 + 0tik 5era$ | |
| r | | | p eta s-rentzat aurreikusitako balioen arteko batezbesteko geometrikoa | |
| s | | | $+ IT8 + 1etik 4ra$ | $D \leq 50$ |
| | | | $+ IT7 + 0,4 D$ | $D > 50$ rentzat |
| t | | | $+ IT7 + 0,63 D$ | |
| u | | | $+ IT7 + D$ | |
| v | | | $+ IT7 + 1,25 D$ | |
| x | | | $+ IT7 + 1,6 D$ | |
| y | | | $+ IT7 + 2 D$ | |
| z | | | $+ IT7 + 2,5 D$ | |
| za | | | $+ IT8 + 3,15 D$ | |
| zb | $+ IT9 + 4 D$ | | | |
| zc | $+ IT10 + 5 D$ | | | |

Ardatzentzako lorturiko erreferentzia-diferentziak 6. taularen arabera biribiltzen dira.

6. taula

| Balioak μ -tan | Baino handiago | 5 | 45 | 60 | 100 | 200 | 300 | 560 | 600 | 800 | 1000 | 2000 |
|--|---|----|----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|------|------|------|
| | raino | 45 | 60 | 100 | 200 | 300 | 560 | 600 | 800 | 1000 | 2000 | — |
| Adierazten diren multiploetara biribildu | Kalitatea 11 eta finagodun oinarritzko perdoientzat | 1 | 1 | 1 | 5 | 10 | 10 | — | — | — | — | — |
| | a-tik g-ra ardatzen erreferentzia-diferentzientzat | 1 | 2 | 5 | 5 | 10 | 10 | 20 | 20 | 20 | 50 | — |
| | k-tik zc-ra ardatzen erreferentzia-diferentzientzat | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 5 | 5 | 10 | 20 | 50 | 100 |

Erreferentzia-diferentziak ZULOENTZAT, 7 eta 8. tauletan adierazitako erregelen arabera definitzen dira.

7. taula

| | | | |
|---|--------------|-----------------------------|--|
| ARAU OROKORRA: | | | |
| Zuloen diferentziak eta ikur (letra eta kalitate) bereko zuloen diferentziak erreferentzia-lerroarekiko zehazki simetrikoak dira. | | | |
| Beraz: D_i zuloaren diferentzia behearena eta letra bereko zuloaren aurkako zeinudun d_s diferentzia gorena berdinak dira. | | | |
| Erregela honek diferentzia guztientzat balio du, ondoko hauentzat izan ezik | | | |
| | N | 9 kalitatea eta zakarragoa | $d_s = 0$ Erregela berezia: $D_s = d_i$. Kalitate bateko zuloaren D_s -a, ardatzaren letra berekoaren gehi d_i -a eta gradu bat finagoko kalitatearen balio berdina gehi 8. taulan kalitate horri dagokion gehikuntza du. |
| | J, K, M, N | 8. kalitateraino bera barne | |
| | Ptik ZCraino | 7. kalitateraino bera barne | |

8. taula

Ardatzaren gradu bat finagoko diferentzia beherena zein den jakinda, zuloaren diferentzia gorena determinatzeko gehikuntza (K-tik ZC-rainoko zuloentzat).

| Neurri-sailak mm-tan | 3 raino | >3 tik 6 ra | >6 tik 10 era | >10 etik 18 ra | >18 tik 30 era | >30 etik 50 era | >50 etik 80 ra | >80 tik 120 ra | >120 tik 180 ra | >180 tik 250 era | >250 etik 355 era | >355 etik 400 era | >400 etik 500 era |
|-------------------------|------------------------------|----------------------|------------------------|-------------------------|-------------------------|--------------------------|-------------------------|-------------------------|--------------------------|---------------------------|----------------------------|----------------------------|----------------------------|
| Kalitateak | Gehikuntza $\Delta \mu$ -tan | | | | | | | | | | | | |
| 3 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1,5 | 1,5 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 5 |
| 4 | 0 | 1,5 | 1,5 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 4 | 5 | 5 |
| 5 | 0 | 1 | 2 | 3 | 3 | 4 | 5 | 5 | 6 | 6 | 7 | 7 | 7 |
| 6 | 0 | 3 | 3 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 7 | 9 | 9 | 11 | 13 |
| 7 | 0 | 4 | 6 | 7 | 8 | 9 | 11 | 13 | 15 | 17 | 20 | 21 | 23 |
| 8 | 0 | 6 | 7 | 9 | 12 | 14 | 16 | 19 | 23 | 26 | 29 | 32 | 34 |

Aplikazio-adibidea

e perdoi-posizioan eta IT-12ko kalitateaz landuriko 3/5 irudiko ardatzean, kalkulatu:

- a) t perdoiaren balioa
- b) Erreferentzia-diferentziak

Ebazpidea:

- a) Perdoiaren zabalgunea (t), 1. taularen arabera:

$$\text{IT-12rentzat} \rightarrow t = 160i$$

Perdoi-unitateen kalkulua:

$$i = 0,45 \sqrt[3]{D + (D/1000)}$$


20 diametroa, 18tik 30era bitarteko 2. taulako 5. neurri-sailari dagokio. Beraz:

$$D = 18 \cdot 30 = 23,238 \text{ mm}$$

$$i = 0,45 \cdot 23,238 + (23,238/1000) = 1,3073 \mu$$

$$t = (160 \cdot 1,3072 = \mathbf{209,16 \mu})$$

(4. taulan agertzen den balioarekin alderatu)



3.5. irudia.

b) Erreferentzia-diferentziak

- Diferentzia gorena (d_s) 5. taula.

$$d_s = - (11 \cdot D^{0,41})$$

$$d_s = - (11 \cdot 23,238^{0,41}) = 39,95$$

Biribiltasuna 6. taularen arabera:

$$d_s = 40 \mu$$

- Diferentzia beherena (d_i)

$$d_i = - (d_s + t) = - (40 + 210) = -250 \mu$$

Kota honela adierazten da

| |
|---|
| $\text{Ø}20 \text{ e}12 = \text{Ø} 20 \begin{matrix} -0,040 \\ -0,250 \end{matrix}$ |
|---|

Adibidea:

js perdoi-posizioan eta IT-8 kalitatearekin landu behar den 3.6. irudiko ardatzean, kalkulatu:

- a) t perdoiaren balioa
- b) Erreferentzia-diferentziak

Ebazpidea:

- a) Perdoiaren zabalgunea (t), 1. taularen arabera:

$$\text{IT-8rentzat} \rightarrow t = 25i$$

Perdoi-unitatearen kalkulua:

$$D = \sqrt{30 \cdot 50} = 38,73 \text{ mm}$$


$$i = 0,45 \sqrt[3]{32,73} + (38,73/1000) = 1,56 \mu$$

$$t = 25 \cdot 1,56 = 39,03 \mu$$

3. taularen arabera biribilduta (1en multiploa)

$$t = 39 \mu$$

(4. taulan agertzen den balioarekin alderatu)



3.6. irudia.

b) Erreferentzia-diferentziak

$$\text{Kasu honetan } d_s = -d_i = t/2 = 39/2 = 19,5$$

$$d_s = 19,5 \mu$$

$$d_i = -19,5 \mu$$

Kotaren adierazpena

$$\boxed{\text{Ø}40 \text{ js } 8 = 40^{+0,019}_{-0,019}}$$

Adibidea:

k perdoi-posizioan eta IT-6 kalitatearekin landu behar den 3.7. irudiko ardatzean, kalkulatu:

- a) Perdoiaren balioa
- b) Erreferentzia-diferentziak

Ebazpidea:

a) Perdoiaren zabalgunea (t), 4. taularen arabera.

$$t = 40 \mu$$

b) Erreferentzia-diferentziak

– Diferentzia beheena (d_i), 5. taula.

$$d_i = 0,6 \sqrt[3]{D} = 0,6 \sqrt[3]{447,21} = 4,58 \mu$$

$$D = \sqrt{400 \cdot 500} = 447,21 \text{ mm}$$

6. taularen arabera biribilduz


$$d_i = 5 \mu$$

– Diferentzia gorena (d_s)

$$d_s = d_i + t = 5 + 40 = 45 \mu$$

Kotaren adierazpena:

$$\boxed{\text{Ø}420 \text{ k}6 = 420^{+0,045}_{+0,005}}$$



3.7. irudia.

Adibidea:

E perdoi-posizioan eta IT-10 kalitatearekin landu behar den 3.8. irudiko piezan, kalkulatu:

- a) Perdoiaren balioa
- b) Erreferentzia-diferentziak

Ebazpidea:

- a) Perdoiaren zabalgunea (t), 4. taularen arabera:

$$t = 100$$

- b) Erreferentzia-diferentziak

- Diferentzia behekena (D_i), 7. taula.

$D_i = (50 \text{ e}10)$ posizio eta kalitate bereko ardatzaren d_s diferentzia gorena, aurkako zeinuarekin.

Kalkula dezagun 50 e10 ardatzaren d_s , 5. taula erabiliz.

$$d_s = -11 \cdot D^{0,41}; \quad d = \sqrt{30 \cdot 50} = 38,73 \text{ mm}$$

$$d_s = -11 \cdot 38,73^{0,41} = -49,26 \mu$$


Biribiltasuna 6. taularen arabera

$$d_s = -50 \mu \quad D_i = 50 \mu$$

$$D_s = D_i + t = 50 + 100 = 150 \mu$$

Kotaren adierazpena:

| |
|---|
| $50 \text{ E}10 = 50_{+0,050}^{+0,150}$ |
|---|



3.8. irudia.

Adibidea:

K perdoi-posizioan eta IT-6 kalitatearekin landu behar den 3/9 irudiko piezan, kalkulatu:

- a) Perdoiaren balioa
- b) Erreferentzia-diferentziak

Ebazpidea:

- a) Perdoiaren zabalgunea (t), 4. taularen arabera.

$$t = 22 \mu$$

- b) Erreferentzia-diferentziak

- Diferentzia gorena (D_s), 7. taula.

D_s = ardatzaren letra bereko eta gradu bat finagoko (90k5) kalitate berdina gehi 8. taulan kalitate horri dagokion gehikuntza.

Kalkula dezagun 90 k5 ardatzaren d_i , 5. taula erabiliz.

$$d_i = 0,6 \sqrt[3]{D} \quad ; \quad d = \sqrt{80 \cdot 120} = 97,98 \text{ mm}$$

$$d_i = 0,6 \sqrt[3]{97,98} = 2,76 \mu$$

Biribilduz:

8. taularen arabera, gehikuntza $\Delta = 7$ balio du

$$D_s = (-d_i + \Delta) = -3 + 7 = 4 \mu$$

$$D_i = D_s - t = 4 - 22 = -18 \mu$$

Kotaren adierazpena:

$$90 \text{ K}6 = 90_{-0,018}^{+0,004}$$

9. taula. Ardatzentzako erreferentzia-diferentziak.


| Perdoi- -kokapena | Kalitateak | >bai- no raino zei- nua | Diametro izendatuak mm-tan | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|------------------|---|----------------------------|--------|---------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|-----|-----|
| | | | 1 3 | 3 6 | 6 10 | 10 14 | 14 18 | 18 24 | 24 30 | 30 40 | 40 50 | 50 65 | 65 80 | 80 100 | 100 120 | 120 140 | 140 160 | 160 180 | 180 200 | 200 225 | 225 250 | 250 280 | 280 315 | 315 355 | 355 400 | 400 450 | 450 500 | | |
| Neurri minimoak μ-tan DIN7152ren arabera | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| a | Kalitate guztiak | - | 270 | 270 | 280 | 290 | 300 | 310 | 320 | 340 | 360 | 380 | 410 | 460 | 520 | 580 | 660 | 740 | 820 | 920 | 1050 | 1200 | 1350 | 1500 | 1650 | | | | |
| b | | - | 140 | 140 | 150 | 150 | 160 | 170 | 180 | 190 | 200 | 220 | 240 | 260 | 280 | 310 | 340 | 380 | 420 | 480 | 540 | 600 | 680 | 760 | 840 | | | | |
| c | | - | 60 | 70 | 80 | 95 | 110 | 120 | 130 | 140 | 150 | 170 | 180 | 200 | 200 | 230 | 240 | 260 | 280 | 300 | 320 | 360 | 400 | 440 | 490 | | | | |
| d | | - | 20 | 30 | 40 | 50 | 65 | 80 | 100 | 120 | 145 | 170 | 180 | 200 | 200 | 230 | 240 | 260 | 280 | 300 | 320 | 360 | 400 | 440 | 490 | | | | |
| e | | - | 14 | 20 | 25 | 32 | 40 | 50 | 60 | 72 | 85 | 100 | 110 | 125 | 135 | 150 | 165 | 180 | 190 | 210 | 230 | 250 | 270 | 290 | 310 | | | | |
| f | | - | 6 | 10 | 13 | 16 | 20 | 25 | 30 | 36 | 43 | 50 | 56 | 62 | 66 | 72 | 78 | 84 | 90 | 96 | 102 | 108 | 114 | 120 | 126 | | | | |
| g | | - | 2 | 4 | 5 | 6 | 7 | 9 | 10 | 12 | 14 | 15 | 17 | 18 | 20 | 22 | 24 | 26 | 28 | 30 | 32 | 34 | 36 | 38 | 40 | | | | |
| h | | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | | | |
| j* | | 5 eta 6 | - | 2 | 2 | 3 | 4 | 5 | 7 | 9 | 11 | 13 | 16 | 18 | 20 | 22 | 24 | 26 | 28 | 30 | 32 | 34 | 36 | 38 | 40 | | | | |
| j* | | 7 | - | 4 | 4 | 5 | 6 | 8 | 10 | 12 | 15 | 18 | 21 | 26 | 32 | 38 | 44 | 50 | 56 | 62 | 68 | 74 | 80 | 86 | 92 | | | | |
| js | Kalit. guzt. | Mugak, dagozkion kalitatearen $\pm 1/2$ ITri dagozkie | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| k | 4tik 7ra | - | 0 | 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 5 | 5 | 6 | 6 | 7 | 7 | 8 | 8 | 9 | 9 | 10 | | | | | |
| k | > 8 | - | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | | | | |
| m | Kalitate guztiak | + | 2 | 4 | 6 | 7 | 8 | 9 | 11 | 13 | 15 | 17 | 20 | 23 | | | | | | | | | | | | | | | |
| n | | + | 4 | 8 | 10 | 12 | 15 | 17 | 20 | 23 | 27 | 31 | 34 | 37 | 40 | | | | | | | | | | | | | | |
| p | | + | 6 | 12 | 15 | 18 | 22 | 26 | 32 | 37 | 43 | 50 | 56 | 62 | 68 | | | | | | | | | | | | | | |
| r | | + | 10 | 15 | 19 | 23 | 28 | 34 | 41 | 43 | 51 | 54 | 63 | 65 | 68 | 77 | 80 | 84 | 94 | 98 | 108 | 114 | 126 | 132 | | | | | |
| s | | + | 14 | 19 | 23 | 28 | 35 | 43 | 53 | 59 | 71 | 79 | 92 | 100 | 108 | 122 | 130 | 140 | 158 | 170 | 190 | 208 | 232 | 252 | | | | | |
| t | | + | - | - | - | - | - | 41 | 48 | 54 | 66 | 75 | 91 | 104 | 122 | 134 | 146 | 166 | 180 | 195 | 218 | 240 | 268 | 294 | 330 | 360 | | | |
| u | | + | 18 | 23 | 28 | 33 | 41 | 48 | 60 | 70 | 87 | 102 | 124 | 144 | 170 | 190 | 210 | 236 | 258 | 284 | 315 | 350 | 390 | 435 | 490 | 540 | | | |
| v | | + | - | - | - | - | 39 | 47 | 55 | 68 | 81 | 102 | 120 | 146 | 172 | 202 | 228 | 252 | 284 | 310 | 340 | 385 | 425 | 475 | 525 | 590 | 660 | 740 | 820 |
| x | | + | 20 | 28 | 34 | 40 | 45 | 54 | 64 | 80 | 97 | 122 | 146 | 178 | 210 | 248 | 280 | 310 | 350 | 385 | 425 | 475 | 525 | 590 | 660 | 740 | 820 | | |
| y | | + | - | - | - | - | 63 | 75 | 94 | 114 | 144 | 174 | 214 | 254 | 300 | 340 | 380 | 425 | 470 | 520 | 580 | 650 | 730 | 820 | 920 | 1000 | | | |
| z | | + | 26 | 35 | 42 | 50 | 60 | 73 | 86 | 112 | 136 | 172 | 210 | 258 | 310 | 365 | 415 | 465 | 520 | 575 | 640 | 710 | 790 | 900 | 1000 | 1100 | 1250 | | |
| za | | + | 32 | 42 | 52 | 64 | 77 | 98 | 118 | 146 | 180 | 226 | 274 | 335 | 400 | 470 | 535 | 600 | 670 | 740 | 820 | 920 | 1000 | 1150 | 1300 | 1450 | 1600 | | |
| zb | | + | 40 | 50 | 67 | 90 | 108 | 136 | 160 | 200 | 242 | 300 | 360 | 445 | 525 | 620 | 700 | 780 | 880 | 960 | 1050 | 1200 | 1300 | 1500 | 1650 | 1850 | 2100 | | |
| zc | | + | 60 | 80 | 97 | 130 | 150 | 188 | 218 | 274 | 325 | 405 | 480 | 585 | 690 | 800 | 900 | 1000 | 1150 | 1250 | 1350 | 1550 | 1700 | 1900 | 2100 | 2400 | 2600 | | |

10. taula. Zuloentzako erreferentzia-diferentziak.

| Perdoi- kokapena | Kalitateak | >bai- no raino zei- mua | Diametro izendatuak mm-tan | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|--|------------------|---|----------------------------|--------|---------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| | | | 1 3 | 3 6 | 6 10 | 10 14 | 14 18 | 18 24 | 24 30 | 30 40 | 40 50 | 50 65 | 65 80 | 80 100 | 100 120 | 120 140 | 140 160 | 160 180 | 180 200 | 200 225 | 225 250 | 250 280 | 280 315 | 315 355 | 355 400 | 400 450 | 450 500 |
| Neurri minimoak μ-tan DIN7152ren arabera | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| A | Kalitate guztiak | + | 270 | 270 | 280 | 290 | 300 | 310 | 320 | 340 | 360 | 380 | 410 | 460 | 520 | 580 | 660 | 740 | 820 | 920 | 1050 | 1200 | 1350 | 1500 | 1650 | | |
| B | | + | 140 | 140 | 150 | 150 | 160 | 170 | 180 | 190 | 200 | 220 | 240 | 260 | 280 | 310 | 340 | 380 | 420 | 480 | 540 | 600 | 680 | 760 | 840 | | |
| C | | + | 60 | 70 | 80 | 95 | 110 | 120 | 130 | 140 | 150 | 170 | 180 | 200 | 120 | 230 | 240 | 260 | 280 | 300 | 320 | 360 | 400 | 440 | 480 | | |
| D | | + | 20 | 30 | 40 | 50 | 65 | 80 | 100 | 120 | 145 | 170 | 190 | 210 | 230 | | | | | | | | | | | | |
| E | | + | 14 | 20 | 25 | 32 | 40 | 50 | 60 | 72 | 85 | 100 | 110 | 125 | 135 | | | | | | | | | | | | |
| F | | + | 6 | 10 | 13 | 16 | 20 | 25 | 30 | 36 | 43 | 50 | 56 | 62 | 66 | | | | | | | | | | | | |
| G | | + | 2 | 4 | 5 | 6 | 7 | 9 | 10 | 12 | 14 | 15 | 17 | 18 | 20 | | | | | | | | | | | | |
| H | | | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | | | | | | | | | | | |
| J* | 6 | + | 2 | 5 | 6 | 8 | 10 | 13 | 16 | 18 | 22 | 25 | 29 | 33 | | | | | | | | | | | | | |
| J* | 7 | + | 4 | 6 | 8 | 10 | 12 | 14 | 18 | 22 | 26 | 30 | 36 | 43 | | | | | | | | | | | | | |
| J* | 8 | + | 6 | 10 | 12 | 15 | 20 | 24 | 28 | 34 | 41 | 47 | 55 | 66 | | | | | | | | | | | | | |
| JS | Kalit. guzt. | Mugak, dagozkion kalitatearen $\pm 1/2$ ITri dagozkio | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| K | 5 | + | 0 | 0 | 1 | 2 | 1 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | |
| K | 6 | + | 0 | 2 | 2 | 2 | 2 | 3 | 4 | 4 | 4 | 5 | 5 | 7 | 8 | | | | | | | | | | | | |
| K | 7 | + | 0 | 3 | 5 | 6 | 6 | 7 | 9 | 10 | 12 | 13 | 16 | 17 | 18 | | | | | | | | | | | | |
| K | 8 | + | 0 | 5 | 6 | 8 | 10 | 12 | 14 | 16 | 20 | 22 | 25 | 28 | 29 | | | | | | | | | | | | |
| M | 6 | - | 2 | 1 | 3 | 4 | 4 | 4 | 5 | 6 | 8 | 8 | 9 | 10 | 10 | | | | | | | | | | | | |
| M | 7 | - | 2 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | | | | | | | | | | | |
| M | 8 | - | -2 | +2 | +1 | +2 | +4 | +5 | +5 | +6 | +8 | +9 | +9 | +11 | +11 | | | | | | | | | | | | |
| M | > 9 | - | 2 | 4 | 6 | 7 | 8 | 9 | 11 | 13 | 15 | 17 | 20 | 21 | 23 | | | | | | | | | | | | |
| N | 6 | - | 4 | 5 | 7 | 9 | 11 | 12 | 14 | 16 | 20 | 22 | 25 | 26 | 27 | | | | | | | | | | | | |
| N | 7 | - | 4 | 4 | 4 | 5 | 7 | 8 | 9 | 10 | 12 | 14 | 14 | 16 | 17 | | | | | | | | | | | | |
| N | 8 | - | 4 | 2 | 3 | 3 | 3 | 3 | 4 | 4 | 4 | 5 | 5 | 5 | 6 | | | | | | | | | | | | |
| N | > 9 | - | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | | | | | | | | | | | | |
| P | 6 | - | 6 | 9 | 12 | 15 | 18 | 21 | 26 | 30 | 36 | 41 | 47 | 51 | 55 | | | | | | | | | | | | |
| R | | - | 10 | 12 | 16 | 20 | 24 | 29 | 35 | 37 | 44 | 47 | 56 | 58 | 61 | 68 | 71 | 75 | 85 | 89 | 97 | 103 | 113 | 119 | | | |
| S | | - | 14 | 16 | 20 | 25 | 31 | 38 | 47 | 53 | 64 | 72 | 85 | 93 | 101 | 113 | 121 | 131 | 149 | 161 | 179 | 197 | 219 | 239 | | | |
| T | | - | - | - | - | - | 37 | 43 | 49 | 60 | 69 | 84 | 97 | 115 | 127 | 139 | 157 | 171 | 187 | 209 | 231 | 257 | 283 | 317 | 347 | | |
| U | | - | 18 | 20 | 25 | 30 | 37 | 44 | 55 | 65 | 81 | 96 | 117 | 137 | 163 | 183 | 203 | 227 | 249 | 275 | 306 | 341 | 379 | 424 | 477 | 527 | |
| V | | - | - | - | - | - | 39 | 43 | 51 | 63 | 76 | 96 | 114 | 139 | 165 | 195 | 221 | 245 | 275 | 301 | 331 | 376 | 416 | 464 | 519 | 582 | 647 |
| X | | - | 20 | 25 | 31 | 37 | 42 | 50 | 60 | 75 | 92 | 116 | 140 | 171 | 203 | 241 | 273 | 303 | 341 | 376 | 416 | 466 | 516 | 579 | 649 | 727 | 807 |
| Y | | - | - | - | - | - | 59 | 71 | 89 | 109 | 138 | 168 | 207 | 247 | 293 | 333 | 376 | 416 | 461 | 511 | 571 | 641 | 719 | 809 | 907 | 987 | |
| Z | | - | 26 | 32 | 39 | 47 | 57 | 69 | 84 | 107 | 131 | 166 | 204 | 251 | 303 | 358 | 408 | 458 | 511 | 566 | 631 | 701 | 781 | 889 | 989 | 1087 | 1237 |
| ZA | | - | 32 | 39 | 49 | 61 | 74 | 94 | 114 | 143 | 175 | 220 | 268 | 328 | 393 | 463 | 528 | 593 | 661 | 731 | 811 | 911 | 991 | 1139 | 1289 | 1437 | 1587 |
| ZB | | - | 40 | 47 | 64 | 81 | 105 | 132 | 156 | 195 | 237 | 294 | 354 | 438 | 518 | 613 | 693 | 773 | 871 | 951 | 1041 | 1191 | 1291 | 1489 | 1639 | 1837 | 2087 |
| ZC | 6 | - | 60 | 77 | 94 | 127 | 147 | 184 | 214 | 269 | 320 | 399 | 474 | 578 | 683 | 793 | 893 | 993 | 1141 | 1241 | 1341 | 1541 | 1691 | 1889 | 2089 | 2387 | 2587 |

10. taularen jarraipena

| Perdoi- -kokapena | Kalitatea | >bai- no raino zei- nua | Diametro izendatuak mm-tan | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|-----------|-------------------------------------|----------------------------|--------|---------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| | | | 1 3 | 3 6 | 6 10 | 10 14 | 14 18 | 18 24 | 24 30 | 30 40 | 40 50 | 50 65 | 65 80 | 80 100 | 100 120 | 120 140 | 140 160 | 160 180 | 180 200 | 200 225 | 225 250 | 250 280 | 280 315 | 315 355 | 355 400 | 400 450 | 450 500 | | | | | | | | | |
| Neurri minimoak μ -tan DIN7152ren arabera | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| P | 7 | - | 6 | 8 | 9 | 11 | 14 | 17 | 21 | 24 | 28 | 33 | 36 | 41 | 45 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| R | | - | 10 | 11 | 13 | 16 | 20 | 25 | 30 | 32 | 38 | 41 | 48 | 50 | 53 | 60 | 63 | 97 | 74 | 78 | 87 | 93 | 103 | 109 | | | | | | | | | | | | |
| S | | - | 14 | 15 | 17 | 21 | 27 | 34 | 42 | 48 | 58 | 66 | 77 | 85 | 93 | 105 | 113 | 123 | 138 | 150 | 169 | 187 | 209 | 229 | | | | | | | | | | | | |
| T | | - | - | - | - | - | - | 33 | 39 | 45 | 55 | 64 | 78 | 91 | 107 | 119 | 131 | 149 | 163 | 179 | 198 | 220 | 247 | 273 | 307 | 337 | | | | | | | | | | |
| U | | - | 18 | 19 | 22 | 26 | 33 | 40 | 51 | 61 | 76 | 91 | 111 | 131 | 155 | 175 | 195 | 219 | 241 | 267 | 295 | 330 | 369 | 414 | 467 | 517 | | | | | | | | | | |
| V | | - | - | - | - | - | 32 | 39 | 47 | 59 | 72 | 91 | 109 | 133 | 159 | 187 | 213 | 237 | 267 | 293 | 323 | 365 | 405 | 454 | 509 | 572 | 637 | | | | | | | | | |
| X | | - | 20 | 24 | 28 | 33 | 38 | 46 | 56 | 71 | 88 | 111 | 135 | 165 | 197 | 233 | 265 | 295 | 333 | 368 | 408 | 455 | 505 | 569 | 639 | 717 | 797 | | | | | | | | | |
| Y | | - | - | - | - | - | 55 | 67 | 85 | 105 | 133 | 163 | 201 | 241 | 235 | 325 | 365 | 408 | 453 | 503 | 560 | 630 | 709 | 799 | 897 | 977 | | | | | | | | | | |
| Z | | - | 26 | 31 | 36 | 43 | 53 | 65 | 80 | 103 | 127 | 161 | 199 | 245 | 297 | 350 | 400 | 450 | 503 | 558 | 623 | 690 | 770 | 879 | 979 | 1077 | 1227 | | | | | | | | | |
| ZA | | - | 32 | 38 | 46 | 57 | 70 | 90 | 110 | 139 | 171 | 215 | 263 | 322 | 387 | 455 | 520 | 585 | 653 | 723 | 803 | 900 | 980 | 1129 | 1279 | 1427 | 1577 | | | | | | | | | |
